ra parixetaŕ, jaupari nagosi judaŕak, aŕokeriz, goŕotoz ta bekaitzez itsuturik; ta pizti basatiak euraen eŕpe aŕtean jausten dan bildots otzanaren odolaz asetzen eztiran lez, biotz baŕuan daben aspeŕkunde egaŕia ezta ondiño ase. Bild̄uŕ edo dira biotz eŕukioŕen bat Josu'ren aldez jaikiko ete dan, eta zeŕbait̄ itzalit̄a zirudien biotz baŕengo goŕotoa, baŕiro irakit̄en asi da, eta eŕuki bide gustiak galerasteko, ezetsiz eta ixekaz buruai eragiñaz bere ondotik igaroten ziranak esaten eutsoen: «Ia ba txadona ondatu ta iru egun buru beŕegiten dozun oŕek, zeure burua gaizkatu egizu. (Matth, XXXVII-39) «Besteak gaizkatu dit̄u ta, bere burua ezin gaizkatu dau! Ixarel'go Bakaldun dan Kisto ori, ointxe gurutzatik jatzi daitela ta beragan zinetsikogu..! (Luk. XXIII-36) Eta birao ikaragaŕi oneik aborik-abo gizaŕtean zabaldu dira eta biotz batzuetan soŕtzen asi dan eŕukia it̄o dabe. Giza-girnak onakoxeak dira. Biotz baŕuan eskutauta dagozan aŕtean, sugegoŕi antzera toki damotzen biotza bakaŕik edenduten dabe, baña bein azaleratu ezkero, biotzik edeŕenak euraen eden (veneno) galgaŕiagaz kutsututeko gai dira.

* * *

Eta Josu, on egit̄eko baño igit̄u etziran eskuak untze gogoŕez gurutzari josita eukazala, ainbeste iŕi ta ixeka ikusi, ainbeste birao, irain eta laido entzun, eta bere etsai gustiak nai izanaz bakaŕik betiko ondatzeko almena eukan aŕen... ¡ixil - ixilik dago! ¿asperkunde auŕetiko ixil̄tasuna ete da? Ez. Josu'k ondo dazau etsayen gaiztakeri ta biotz txaŕa, baña baita be batzuk ez jakiñez, ala atsipetuta, ta beste batzuk giŕnaz itsututa euren obenaren ikagaŕitasuna ezebela ondo ezautzen, eta gaiztakeria ontasun ugaritasunaz it̄oteko, bere aldez Nekaldi gustian zabaldu ez daben aboa, bera gurutzan josi ebenen aldez, ta beraz obendio gustion aldez otoi egiteko zabaldu dau, gustiontzat pozkaŕipozkaŕi diran itz edeŕok esanaz: «Aita: paŕkatu egiezu oŕei, zeŕ dagien eztakieta». Iraiñez esituta itz zoragaŕiok esan dit̄uana, ¡ziñez! Jaungoiko da!.

* * *

Eta guk Bere jarail̄e esten gareanok, Josu gurutzaldua geure Irakasle bakaŕtzat daukagunok, geideak beaŕ ba'da alako asmo barik esan dauskun itz gaŕastxo bat parkatu nai ez..!

¿Benetako kistaŕak ete gara?

**Manterola'taŕ Gabirel**

# MAITEAREN NEKEA

Maiteak. maite-bil̄a
nekea igarota,
bide goyan arki du
Amaren magala,
Josu'ren atsedena
Miren'en altzua,
¡maitasun-neke-sari
txit berarizkoa!

Seme nekalduaren
Ama tamaltsua,
maiterik maitenaren
maitale mindua;
min gogoŕen nekeak
Maitea erail̄ du,
ta neke oŕen miñak
¡ai! Zu il̄ bear zaitu!

Maitiaren Maitale
maitariena Zu,
oŕengatik zuregan
atsedena nai du;
¡Maite ori maitatzen
irakatsi neri
nere eŕukien poza
emateko zeuri!

TENE.